**Gobernantza** eta Berrikuntza **Publikoko 2020** Plan Estrategikoa | Plan Estratégico de **Gobernanza** e Innovación **Pública 2020**

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 29a

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 1.- Sarbidea, egoitza elektronikotik






Herritarren karpeta, “Nire karpeta”, herritarrentzako eremu pertsonalizatua da, Eusko Jaurlaritzarekin dituzten harremanetarako diseinatua.

“Nire karpeta”-n Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikotik sar daiteke.

[www.euskadi.eus/nirekarpeta](http://www.euskadi.eus/nirekarpeta)

**OHARRA:** “Nire karpeta”-n sartzeko, modu seguruan identifikatu behar duzu zure burua, identifikazio elektronikorako onartutako bitarteko baten bidez.

# "Nire karpeta", herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 2.- Funtzionalitateak






"Nire karpeta" izeneko herritarren karpetak honako **funtzionalitate** hauek ditu:

- Uneko espedienteak edo amaitutakoak kontsultatzea.
- Jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzea. Irakurtzeko zain dauden jakinarazpenetara joan zaitezke, baita jadanik jasotakoetara edo uko egindakoetara ere.
- Egindako eta egin gabeko ordainketak kontsultatzea. Egin gabeko ordainketen kasuan, ordainketa-pasabidera joateko aukera dago, ordainketa online egiteko.
- Ziurtagiriak kontsultatzea.

**"Sartu Nire karpetan"** sakatu behar dugu.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 3.- Identifikazio elektronikorako bitartekoa




03

Daukagun identifikazio elektronikorako bitartekoa aukeratu behar dugu:

- Erabiltzailea, pasahitza eta itsasontzi-jokoa (koordenatuak)
- Ziurtagiri digitalak

**OHARRA:** Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoan daude argitaratuta identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 4.- Espedienteen zerrenda, profilaren arabera




04

Nire karpetak herritar gisa sartu den pertsonaren erabiltzaile-profilari dagozkion espedienteen zerrenda erakutsiko du.

Erabiltzaile-profilaren aukera zabaldu behar dugu, identifikatu den pertsonak dituen profilak ikusteko.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 4.- Espedienteen zerrenda, profilaren arabera






Adibidean ikusten da “IÑAKI CONEÑE DESARROLLO” pertsonak, herritar gisa duen bere profilaz gain, beste bi profil berri ere badituela:

- “DIPUTACIÓN X” entitatearen ordezkariaren profila
- “EMPRESA PRUEBAS NMG” entitatearen ordezkariaren profila

## 4.- Espedienteen zerrenda, profilaren arabera






“EMPRESA PRUEBAS NMG” entitatearen ordezkariaren profila aukeratzen badugu,

Espediente hauek ikus ditzakegu:

1. Entitate horren beraren espedienteak
2. Ordezkari gisa ari den entitatearen espedienteak.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 5.- Nola sartu jakinarazpen bat ikustera

05




Administrazioak interesdun bati jakinarazpen bat egiten dionean, mezu elektroniko bat edo sms bat bidaltzen dio, jakinarazpen berri bat duela esateko.



euskadi.eus

**Euskal Administrazioaren ziurtapen elektronikoaren abisu-zerbitzua**

Jakinarazten dizugu Eusko Jaurlaritzako Egoitza elektronikoan ziurtapen elektroniko bat duzula.

**Ziurtapen elektronikoaren datuak:**

- **Erakunde jaulkitzailea:** EAEko Administrazio Publikoa
- **Sail kudeatzailea:** IVAP - HERRI-ARDURALAR.EUSKAL ERAKUNDEA
- **Organo kudeatzailea:** IVAP, HERRI-ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA
- **Prozedura:** IVAP - Prestakuntza ziurtagiriak
- **Espedientearen izenburua:** 2018/64/0/1 - IVAPek antolatutako prestakuntza jardueraren ziurtagiria
- **Espediente-zenbakia:** 00030-20180425_10020865
- **Ziurtatzen den ekintza:** Ziurtagiria
- **Hartzailearen NAN:** 30558829V
- **Hartzailearen izen-abizenak:** ALAZNE ETXEBARRIA AURREKOETXEA
- **Argitaratze-data eta -ordua:** 25-04-2018 10:17:54

**Ziurtapen elektronikoen zerbitzua erabiltzeko beharrezko baliabide teknikoak:**

- Interneterako konexioa duen gailu elektronikoa.
- Identifikazio elektronikorako Administrazio honek onartutako bitartekoren bat

**Ziurtapen elektronikoen zerbitzuan sartzeko pausoak:**

- Sartu Nire kudeaketak atalean.
- Identifakatu.
- Sartu ezkerreko menuan dagoen Ziurtagiriak aukeran.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 5.- Nola sartu jakinarazpen bat ikustera






Jakinarazpenak ikusteko, ezkerreko menuan “Jakinarazpenak” aukera sakatu behar dugu.

Han agertzen den zenbakiak zenbat jakinarazpen dagoen jaso gabe adierazten du.

**Oharra:** 10 egun naturaleko epean EZ bazara sartzen jakinarazpen elektroniko bat ikustera, ulertuko da uko egin diozula: izapidea egintzat emango da eta Administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 5.- Nola sartu jakinarazpen bat ikustera




**05**

Jaso nahi dugun jakinarazpena aukeratuko dugu.

## 5.- Nola sartu jakinarazpen bat ikustera






Espedientearen laburpen bat agertzen da:

- Jakinarazpenaren identifikazioa
- Jakinarazpenaren datuak

Jakinarazpena ikusteko, **“Ikusi jakinarazpena”** botoia sakatu behar dugu.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 5.- Nola sartu jakinarazpen bat ikustera

05




Jakinarazpena ikustera sartu ondoren, jakinarazpenak erantsita dituen dokumentuak ikusten dira:

- Jakinarazpenaren dokumentua
- Jakinarazpena argitaratzearen egiaztagiria
- Zuzentze-eskaera (hala badagokio)

Dokumentu horiek ikusteko, ikono hau sakatu behar dugu ⋮

**OHARRA:** Jakinarazpena ikustera sartu ondoren, jaso gabeko espedienteen kopurua jaitsi egiten da.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 5.- Nola sartu jakinarazpen bat ikustera

05




Sistemak ekintza hauek egiteko aukera ematen digu:

- Deskargatu
- Sinadura egiaztatu

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari

06




Imajinatu dezagun jaso dugun jakinarazpenari dokumentu batzuk erantsi behar zaizkiola.

Izapidetzen ari den espediente bati dokumentuak eransteko, dokumentu horretara joan eta **“Dokumentuak erantsi”** botoia sakatu behar dugu.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari




06

Sistemak “Dokumentuak aurkeztea” formularioa erakusten du.

1. urratsak espedienteari buruzko informazioaren laburpena ematen du.

Dokumentuak eransteko (2. urratsa), “**Hurrengoa**” botoia sakatuko dugu.

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari






2. urratsean, “Dokumentuak erantsi”, erantsi beharreko dokumentu moten zerrenda dator:

(Adibidean: Gidabaimena, Proformako faktura, Familia-liburua)

Dagokion dokumentua eransteko, “**Erantsi**” ikonoa sakatu behar da.




OHARRA: Espedienteari beste edozein dokumentu erantsi nahi izanez gero, “**DOKUMENTUA GEHITU**” botoia sakatu behar da.

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari

06




Eskatutako dokumentuak erantsi ondoren, "**HURRENGOA**" botoia sakatuko dugu.

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari

06




Dokumentuak aurkezteko formularioak aurkeztutako informazioaren laburpena erakusten du.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari




**06**

Dokumentuak aurkezteko formularioak aurkeztutako informazioaren laburpena erakusten du.

“**BIDALI**” botoia aukeratu behar dugu.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari




**06**

Dokumentuak aurkezteko formularioak Sarrera-erregistro elektronikoaren datuak erakusten ditu.

“**Dokumentuak aurkeztea**” leihoa itxi egingo dugu.

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari

06




Orain, dagokion espedienteak aurkeztutako azken dokumentuak erakusten ditu.

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 6.- Nola erantsi dokumentuak espedienteari






“Dokumentuak” ataletik, espedientearen dokumentu guztietara joan daiteke; dokumentu mota hauek agertzen dira:

- Aurkeztu dituzun dokumentuak
- Administrazioak emandakoak
- Administrazioak lortutakoak

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

## 7.- Nola ikusi tramitazioaren zehaztasunak




07

Espediente baten izapidetze-segida bistaratzeko, dagokion espedientera joan eta ”Tramitazioaren zehaztasunak” aukera zabaldu behar dugu.

## 7.- Nola ikusi tramitazioaren zehaztasunak






Sistemak espedientearen izapidetze-segida erakusten du.

## 8.- Nola aldatu abisuak eta jakinarazpenak jasotzeko datuak






Abisuak eta jakinarazpenak jasotzeko datuak aldatzeko, dagokion botoia aukeratu behar dugu:

- Jakinarazpenak jasotzeko datuak
- Abisuak jasotzeko datuak

# “Nire karpeta”, herritarren karpeta, erraz erabiltzeko gida

***Eskerrik asko***